

## MGEP-eko bi emakume langileen hitzaldia (Inspiring Women)

Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza fakultatean lan egiten duten bi emakumeren hitzaldia, beraien lanbidea zertan datzan ezagutzeko

- Lanketa DBHko maila guztientzat gomendatzen da.
- Ikasleek arlo teknikoan lan egiten duen emakumeenganako pertzepzioa areagotzeko balio du.
- Orokorrean, gizonezkoekin lortzen diren arloetan emakume erreferenteak izaten laguntzen du.
- Lanbide hauen inguruan izan ditzaketen jakin-min eta kezka argitzeko balio du.

## Nola prestatzen da?

1. Ikasleek, hizlarien lanbidearen inguruan jakin nahi dutenaren inguruan hausnarketa egin beharko dute: Egin dituzten ikasketak, jarraitu duten ibilbidea gaur egunera arte, eguneroko jarduna.
2. Ikasleek, taldeka antolatuz, hizlariari egin beharreko galderak prestatuko dituzte.
3. Hitzaldia, irakasleak eginiko bi hizlarien aurkezpen laburrekin hasiko da.
4. Irakaslearen sarreraren ondoren, hizlarien aurkezpena hasiko da.
5. Aurkezpena bukatutakoan, ikasleek, aurrez prestatutako galderak egingo die hizlariari

*Online kasurako, hizlariak berak aurkeztuko du bere burua. Bi ideia aipatuz, ikasketak eta orain arteko ibilbidea. Bukaeran galderak egiteko tarte utziko da.*

## Eskaleta. Ikastetxean

Denbora	Inplementazioa
5 min (Hitzaldian)	<b>Irakasleak</b> Hizlari/ekintzaren aurkezpen laburra
20 min (Hitzaldian)	<b>Hizlariak:</b> Bere burua aurkeztuko dute, ondorengo bi ideietan zentratuz: <ul style="list-style-type: none"><li>• Gauzatutako ikasketak</li><li>• Gaur arteko ibilbidea</li></ul>
30 min (Hitzaldian)	<b>Hizlariak:</b> Beraien lanbidez hitz egingo dute, egunerokotasunak zertan datzan azalduz
20 min (Hitzaldian)	<b>Ikasleak:</b> Ikasleek hizlariari aurrez prestatutako galderak egingo die